



ARTELEKU TAILERRA/TALLER
AZA/15-18/NOV ALEGORIAK/ALEGORIAS
KAREN KNÖRR

KOORDINAZIOA / COORDINACIÓN:
RAMÓN ESPARZA





AZA/15
AZA/18

TAILERRA
KAREN KNÖRR

ALEGORIAK

Koordinazioa: Ramón Esparza

«Ça a été»: horra zer esaldirekin laburtzen duen argazkiaren funtsa Roland Barthesek, bere *Kamera argitsua* obran. «Hori, izan da». Irudiaren aurrean, nire lehenbiziko errakzioa zera da: irudiak islatzen didana, izan, izan dela historiaren une jakin batean. Barthesek ez zuen ukatzen irudiaren erretorika bat egon zitekeenik; hain zuzen ere, argazkigintzari buruzko lehen testuetariko batean aztertua zuen gaia; baina, berarentzat, errealitatea jasotzea argazkilararen esku-hartzeen gainetik dago.

Teoria modernistarentzat, irudiaren eta erreferentearen arteko zuzeneko lotura da argazkia beste ikus arte batzuetatik —pintura edo marrazkitik, kasu— bereizten duen elementu nagusia. Lotura hori, izan ere, irudiaren eta objektu konkretu baten artean sortzen baita, ez irudiaren eta objektu klase baten artean. Horrek ondorio nabarmena du: argazkia nekez uztartzen dela sinbolikoarekin; edo, bestela esanez eta Régis Duranden hitzak erabiliz (*Le temps de l'image*), argazkia singularrari itsasten zaiola, eta, horrenbestez, funtzionamendu sinbolikorako behar den urrunea eragozten duela.

Esparru fotografikoari begira, indizialtasunaren teoria honen zuzeneko ondorioz, indartzen diren poetikak dira objektuaren aurkezpenean edo irudiaren ekoizpen baldintzetan zentratzen direnak, denborazkotasunarekin duen harreman estuan zentratzen direnak. Beste autore batzuen arabera —Craig Owens, adibidez—, argazkiaren erabilera alegorikoa da, hain zuzen ere, posmodernitatea definitzen duten praktiketako bat. Bere *Allegorical Impulse* obran, Owensek planteamendu hori aipatzen du arte posmodernoarean ezaugarrien artean eta, jakina, erreakzio gisa argazki modernistaren aurrean, honek dokumentalismoaren estetika izan baitzuen ordu arte ardatz. Dokumentalismoak erakusten duena bera adierazi nahi duen bitartean, alegoriak bigarren adierazi maila bat ezartzen du, erakusten denaren eta esan nahi denaren artean desadostasuna sortuz.

Karen Knörrek, mintegi honetan, planteatuko du zertan oinarritu duen bere lana, museoaren inguruan eta irudi fotografikoak XVIII. mendeko praktika artistikoekin duen loturaren inguruan. Mende hartako pintura, izan ere, oso lotua ageri da akademizismoaren baloreekin, hau da, bizitzaren eta ezagutzaren esparru guztietan arau espiritua ezarri nahi duen arrazionalismo baten espresio artistikoaren baloreekin. Enziklopedistek beti nahi izan dituzte arteak sailkatu, *ideal* piktorikoak ezarri eta museo artelanak gordailatzeko eta sailkatzeko toki gisa hartu. Knorren obrari hausnarketa bat dario printzipio horien inguruan; bereziki, arte klasikoak garatutako lengoia artistikoari buruz eta gizarte garaikideak harekin duen harremanari buruz egiten du gogoeta, gaurko gizarteak eta ordukoak oso desberdin ikusten baitute gaia.

IZEN-EMATEA

Izena emateko epea: azaroak 2.
Tailerraren ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00
Parte hartzaileak: 15 gehienez.

Bidaliz zure datu pertsonalak, CVa eta motibazio eskutitza
→ arteleku@gipuzkoa.net helbidera.

INFORMAZIO OROKORRA

Arteleku - Gipuzkoako Foru Aldundia, arte garaikide zentro bat da, jardute artistiko kultural esperimentalak bultzatzen dituena. Proiektzioa izango duten eta gure ingurunean era sozial, publiko eta komunitarioan errotu diren proposamen mota oro sortu eta sustatzeko xedez, artea bultzatzeko leku bat da.

→ www.arteleku.net en zentroak programatutako ekitaldien inguruko eta Artelekurekin elkarlanean aritzen diren proiektuek sortutako dokumentazioa dago eskuragarri.

Informazioa - administrazioa | Información - administración

Astelehenetik ostiralera | de lunes a viernes
Ordutegia | Horario: 8:00 - 19:00
T 00 34 943 453 662 | F 00 34 943 462 256
arteleku@gipuzkoa.net

INFORMACIÓN GENERAL

Arteleku - Diputación Foral de Gipuzkoa es un centro de arte contemporáneo que impulsa prácticas artísticas culturales experimentales. Un lugar de apoyo al arte desde la perspectiva de generar e impulsar toda clase de propuestas que permitan una proyección externa, y, a su vez, se adscriban en un modo social, público y comunitario.

En → www.arteleku.net está accesible toda la información en torno a las actividades programadas por el centro, así como la documentación generada mediante la colaboración con diferentes proyectos.

Dokumentazio Zentroa | Centro de Documentación

Astelehenetik ostiralera | de lunes a viernes
Ordutegia | Horario: 10:00 - 14:00 / 15:00 - 19:00
T 00 34 943 444 667 | F 00 34 943 462 256
garrillaga@gipuzkoa.net

15/NOV
18/NOV

TALLER
KAREN KNÖRR

ALEGORIAS

Coordinación: Ramón Esparza

«Ça a été», es la frase con la que Roland Barthes resume, en *La cámara lúcida*, la esencia de la fotografía. «Eso ha existido». Ante la imagen, mi primera reacción es constatar la existencia, en un momento dado de la historia, de aquello que me muestra. Barthes no negaba la posibilidad de una retórica de la imagen, a la que había dedicado uno de sus primeros textos sobre la fotografía, pero para él, la constancia de lo real se impone por encima de las manipulaciones del fotógrafo.

Para la teoría modernista, la conexión directa entre imagen y referente es el elemento diferenciador respecto a otros medios visuales como la pintura o el dibujo. Una conexión que se establece entre la imagen y un objeto en concreto, no entre aquella y la clase a la que éste pertenece. La conclusión más inmediata es la resistencia de la fotografía a lo simbólico; el carácter deflacionario que, en palabras de Régis Durand (*Le temps de l'image*), hace que ésta se adhiera a lo singular e impida el distanciamiento el funcionamiento simbólico demanda.


La consecuencia más directa de esta teoría de lo indicial en el ámbito fotográfico es la promoción de aquellas poéticas que se centran en la presentación del objeto o en las condiciones mismas de la producción de la imagen y su estrecha relación con lo temporal. Pero otros autores, como Craig Owens, señalan, precisamente, el uso alegórico de la fotografía como una de las prácticas definitorias de la posmodernidad. En su *Allegorical Impulse*, Owens señala este planteamiento como una de las características del arte posmoderno y, evidentemente, como reacción a la fotografía modernista, centrada hasta entonces en la estética del documentalismo. Mientras éste pretende significar lo que muestra, la alegoría establece un segundo nivel de significado, en el que lo que se muestra y lo que se pretende decir divergen.

Karen Knörk planteará en este seminario los fundamentos de su trabajo en torno al museo y al entronque de la imagen fotográfica con las prácticas artísticas del XVIII. La pintura de ese siglo permanece férreamente asentada en los valores del academicismo, entendido como expresión artística de un racionalismo que pretende imponer su espíritu ordenancista en todos los ámbitos de la vida y el conocimiento. El afán categorizador de los enciclopedistas llevará al intento de clasificación de las artes, al establecimiento de los *ideales* pictóricos y a la creación del museo, como lugar donde las obras de arte son depositadas y clasificadas. Knorr desarrolla su obra como reflexión sobre estos principios y sobre el lenguaje artístico, desarrollado por el arte clásico, y el modo en que la sociedad contemporánea se relaciona con él, en términos muy diferentes de los planteados en su momento.

INSCRIPCIÓN

Plazo de inscripción: 2 noviembre.
Horario del taller: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00
Participantes: máximo 15.

Envía tus datos personales, CV y una carta de motivación a
→ arteleku@gipuzkoa.net



Nola heldu | Cómo llegar

- 26 / Amara - Martutene → Txomin - Enea
A / Donostia - Hernani → Txomin - Enea
- Renfe / Irun - Brinkola → Donostia - Loiola
Eusko Tren / Topo → Donostia - Loiola
- A8 / Salida 5 → Martutene - Loiola



Kristobaldegia, 14. Loiola. 20014 Donostia - San Sebastián
T 00 34 943 453 662 | F 00 34 943 462 256 | arteleku@gipuzkoa.net | www.arteleku.net